

# Armeria Beloki

## Zigor Beloki

Historio hau aspaldi hasi zen eta oraindik ere bizirik dirauela esango nuke nik.

1975. urteko ekainean etorri nintzen munda, Errenteriarra hain zuzen ere, eta momentu hartatik bai bertan bai eta inguruko herrietan ere horren ezaguna zen familiaren inguruan izandako bizipen eta oroimenak kontatu nahi dizkizuet.

Baina, zergatik ziren ba Belokitarrek horren ezagunak? Bada, herrian mugimendu handia zuen bizikleta denda zutelako, zeina poliki-poliki armategi bihurtu zuten.

Urte haietan ez zen armategi askorik gure ingurunean eta are gutxiago Beloki Armeriak ematen zuen tratu pertsonalizatua ematen zuenik. Ordutegiak goizeko 9etatik arratsaldeko 7ak arte

izan beharko zukeen, baina errealitatean ehiza garaian 24 orduz egiten zen lan, kartutxoak gora, kartutxoak behera. Dendaz gain, Arriaundi izeneko "kanpo-tiro" a ere bazeukaten, asteburu askotan entrenamendu eta tirada mordoaren lekuko. Uda iristen zenean ere, lan askotxo egiten zuten herri askotan "tiradak" antolatuz. Imajina dezakezuen bezala, 70 hamarkadan eskopetak modan zeuden eta hainbeste jarduera antolatu eta sustatzeak ospea ematen zuen.

Ni iritsi nintzen garaian, gure familia nahiko berezia zen ikuspuntu horretatik, baina nire bizitzako lehenengo bizpahiru urtetan jazotako gertakariak ezer gutxi gogoratzen ditut. Adinean aurrera egin ahala, aldiz, gero eta anekdota, leku eta pertsona gehiago irudikatzen ditut. Lehen



*Armeria Beloki kokatua zegoen lokala. Haiiek erabilitako kartela, "caza-pesca-camping", mantentzen da oraindik.*

oroipenak telefonoaren hotsa dakarkit gogora, gau eta egun "ring, ring" eginaz. Deiak, gehienetan, kartutxoak erosteko izaten ziren. Jaso ondoren, nire aitona, edota etxean zegoen edonork, etxe azpiko biltegira jaitsi eta kartutxo kaxak hartuta erosleei ematen zizkien. Nik aitona-amonen etxeko leihotik ikusten nituen kaxak hartuta nola urruntzen ziren.

Nire hurrengo oroitzapena Arriaundi tiro-esparrukoa da. "AAhh!!!!" hotsa entzun eta ondoren "pan, pan", bi tiro eta bolbora usaia. Irudikatzen hasi eta kolore bat datorkit burura: berdea. Tiro-esparrua Gaintxurizketa inguruan zen, eta han dena zelaiez inguratuta zegoen.

Ondoren, pixka bat koxkorragoa izanik eta gauza gehiagoz ohartzen nintzenez, milaka gomuta datozkit burura. Horieta bat "el nieto de Beloki" bezala ezaguna izatearena da, edota beste askoren ahotan "Belokiren alaba zaharrenaren semea"; Konfiantza pixka bat bazegoen, aldiz, Beloki orde, "Joxe ta Pilar" esan ohi zuten.

Gogoan ditut eskolatik atera eta Iztieta San Sebastian kalean zuten dendan ematen nituen orduak, izkina batean bokadiloa janez, bezeroek kartutxoak, eskopetak eta arrantzarako tresnak erosten zituzten bitartean. Izugarri gustatzen zitzaidan denda jendez betea ikustea eta bereziki eskopetak saltzen ikustea... Aitona, armairua ireki eta gozamenaz ateratzen zituen fundak eta eskopetak, erosleen aurrean muntatu eta erakusteko. Han entzuten nituen, "paralelak" zirela, "superpuestak" zirela, "Bredak" hara, "Beretta" hona...

Ehiza garaian jende mordo etortzen zen dendara, familia guztia lanean aritu arren, ilarak kaleraino iristen ziren, eta bitartean barruan "Armusa", "GB" eta zortzi mila motatako kartutxo kaxak batera eta bestera.

Asteburutan Arriaundin gizon mordo aritzen zen "tiroplatoan". Nire ama, izeba-osaba eta familiako edonork kartutxoak saldu eta tiro-serieak antolatzen zituen bitartean, amonak eguerdirako bazkaria prestatzen zuen, eta nik, aldiz, ondoko taberna irekia ikusten banuen "Schuss naranja" bat edanez egiten nien guztiei so, dena asimilatu eta nire arreba zaintzen nuen bitartean.

Udara iristen zenean, ordea, herri askotan jaiak ospatzen zituztenez, gure tiro-eremua utzi eta bertara joaten ginen "Gran Premio de tiro al plato de..." antolatzaera. Ni askotara eramaten ninduten, baina normalean eguerdi parean iristen nintzen, nire aitona Simca 1.200ak egun horretan egiten zuen bigarren edo hirugarren joan-etorrian. Lehenengo bidaian plater kaxak eta berauek botatzeko erabiltzen zuten makina eraman ohi

zituzten; bigarrenetan, familiako beste kide batzuk joaten ziren guztia antolatzen laguntzera, eta azkenik, gure bila etortzen ziren.

Tirada bukatzen zenean hasten zen gehienetan niretzako momenturik onena: Bazkaltzera joateko garaia! Jatetxe batera batzuetan, taberna batera bestetan, edozein tokitara gindoazela ere, beti ezagunak genituen bertakoak eta primerako tratua jasotzen genuen. A ze gozamen!

Madalenetan ere, ondo dut buruan jendeari "Beloki" zerizkion txapelak eta kamisetak banatzen zitzaizkiola.

Beste pasadizo bat "Guardia Zibila" hitzarena da. Hori entzutean, guztiak "tieso"! Han ibiltzen ziren paperak gora eta paperak behera, "Don Jocé" esanaz. Astean behin Intxaurrondoko koartelera joan behar izaten genuen baimenak berritzera, eta behin edo behin han izan nintzen ni ere. Sarreran hesia igo, kotxea aparkatu eta gidak eta baimenak eskuan hartuta barrura sartzen ginen. Gehienek bibotea zuten, eta ez zuten gure antzera erdaraz egiten, guztiek azentuarekin egiten zuten, hori zen ni gehien harritzen ninduen.

Hala, urteak joan eta urteak etorri, 1991. urtean denda ixteko garaia iritsi zen, erretiroa hartzeko momentua hain zuzen ere. Bizitzaren beste etapa baten hasiera.

Nik uste nuen jendea berehala ahaztuko zela Beloki Armeriaz, baina oker nengoen. Urte asko pasa arren, jendea oraindik ere ederki gogoratzen da familia hartaz, eta nik Belokiren biloba izaten jarraitzen dut. Duela aste batzuk lankide batek opari kuttun bat egin zidan: Deportes AB zeritzon 7 eta erdiko kartutxo gorri bat. Oso kartutxo onak zirela esan zidan, 30 urteren buruan sekulako fustea mantentzen baitzuten, eta pena handia omen zuten kartutxoak bukatzen ari zitzaizkielako, halako kartutxo gehiago non lor zitzaiketen ez baitzekiten.

